BALDINTZA TEKNIKOAK: ERANDIOKO UDALERRIAN AMIANTOAREN ERROLDA ETA AMIANTOA BERA KENTZEKO PLANA EGITEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA, HONDAKIN ETA LURZORU KUTSATUEN 7/2022 LEGEAREN HAMALAUGARREN XEDAPEN IRAGANKOR OSAGARRIAREN ARABERA

1.- XEDEA

Baldintza teknikoen agiri honen xedea da zera da: Erandioko udalerrian amiantoaren inguruko errolda eta amiantoa bera kentzeko plana egiteko laguntza teknikoa kontratatzea. Hori guztia 7/2022 Legearen arabera, apirilaren 8koa, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa, izan ere, hamalaugarren xedapen iragankor osagarrian “Amiantoa duten lekuak eta instalazioak” arautzen dira.

Orokorrean, kontratatutako lanetan egin behar dena hauxe da: amiantoa (MCA) daukan edozein material edo fibrozementua daukan edozein material identifikatu, lokalizatu, kartografikoki kokatu, estimazio ekonomikoa egin eta kentzeko programazioa egitea. Udalerriko instalazio, hiri-sare, eraikin publiko eta pribatu guztietan egingo da (administrazio-erabilerakoak, egoitzak, bizitegi-erabilerakoak, irakaskuntzakoak, komertzialak, ospitaleak, industrialak...). Gainera, bide publikoan dauden beste eraikuntza-elementuetan ere lan egingo da, hala nola markesinak, lorontziak, eta abar.

Errolda horretatik kanpo geratzen dira amiantoagatik kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak (lur-arrasetik behera), baita ere zabortegiak edo kontrolatuta ez dauden hondakin-biltegiak.

2.- EDUKIA, METODOLOGIA ETA LANAREN FASEAK

NORAINOKOA

Metodologia zehatz bat erabiliko da kontratuaren barruan, gida honetan jasotakoa, hain zuzen ere: “EAEn amiantoari buruzko udal erroldak egiteko gida metodologikoa (2024ko apirila”. Eusko Jaurlaritzak editatu zuen (https://www.ihobe.eus/publicaciones/guiametodologica-para-llevar-a-cabo-elaboracion-censos-municipales-amianto-en-capv).

METODOLOGIA

2.1.- IKUSKARITZA, ERREBISIOA ETA ANTZEMATEA: ERROLDA

Prestazio nagusia zera da: amiantoa (MCA) daukan edozein material edo fibrozementua duten eraikuntza-materialak dituzten herriko lekuen errolda egitea. Dokumentu hori “Amiantoaren Errolda eta amiantoa bera kentzeko plana” izango da.

Horretarako, amiantoa duten materialak edo fibrozementua duten eraikuntza-elementuak antzeman eta ikuskaritza eta errebisio lanak egin behar dira eraikin guztietan, publiko zein pribatuak, eta lurpean dauden instalazio eta sareetan eta bide publikoan dauden bestelako elementuetan (markesinak, lorontziak, eta abar).

Lanak hiru etapatan banatuko dira, eta elkarren jarraian joango dira:

a) **AURRETIKO etapa:** amiantoa egon daitekeen instalazio eta lekuak identifikatuko dira, batez ere eraiki ziren urtean oinarrituz eta ortoargazki bidezko lehenengo balorazio bat eginez (erkidego mailako administrazioak udalei pasako dizkie etapa honen hasierako emaitzak, hala nahi badute).

b) **OINARRIZKO etapa:** landa-lanen bidez amiantoa dagoen ala ez baieztatuko da. Horretarako, instalazio bakoitzaren kanpoko aldetik behatuko da eta amiantoa eduki dezaketen elementuak identifikatuko dira. Etapa honetan lehenengo algoritmo bat aplikatuko da. Horren arabera, egutegi

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2025-05-09 06:26:52(UTC) Fecha: 09/05/2025 06:26:52 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (fe4677be-f7fe-4f21-a8b7-9d703cdf8c62) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

bat egin ahal izango da, arrisku handieneko moduan sailkatzen diren kasuak eta lehentasun handienekoak egiteko.

c) **Etapa ZEHAZTUA:** Amiantoa egon daitekeen instalazio eta lekuen ikuskaritza zehatza. Aurreko faseetan lehentasunezkotzat jotako lekuetatik hasiko da. Aurreko etapan ez bezala, maila honetan eraikin edota instalazioak kanpotik eta barrutik ere aztertuko dira, kasu bietan zehatz-mehatz. Begi hutsezko behaketaz gain, dokumentu bidezko ikerketa egingo da, eta baliteke laginak ere hartu behar izatea, zalantzazko kasuetan amiantoa dagoen ala ez baieztatzeko. Horrela erabaki ahal izango da benetako arriskuaren maila metodologia zehatz batetatik abiatuta, eta, horrekin, arrisku hori minimizatu edo eliminatzeko beharrezko ekintzak planifikatuko dira.

2.1.1. AURRETIKO ETAPA

Inbentario-maila hau hasierako hurbilketa bat da, abiapuntu bat. Batez ere oinarrituko da eraikinak egin ziren urtean eta ortoargazki bidez egindako behaketetan (lurrera egokitutako aireko argazkiak). Informazio hori guztia SIG plataforma batean islatuko da (Informazio Geografikoko Sistema).

Aurretiko errolda-lanak prozedura hau eskatuko du, eta hemen zehaztutakoaz gain, beste tresna eta baliabide batzuk erabil daitezke:

1. Sailkapen historikoa eraikuntza-urtearen arabera: Eraikuntza edota erreforma urtearen arabera, udalerriko azpiegitura eta lekuen adinaren sailkapena egingo da. Eraikinak eraikuntza-urtearen arabera sailkatuko dira, estatu mailan egondako amianto-produkzioaren datu historikoen arabera, eta amiantoa edukitzeko potentzialtasuna ezartzen da:

   Ertaina (1900-1940)

   Handia (1940-1993)

   Txikia (1993-2002).

2. Egiaztapen ortofotometrikoa: Behin eraikin eta instalazioen sailkapen historikoa eginda, etapa honetan errolda osatzeko, azterketa bat egingo da Euskadiko atari geografikoan eskuragarri dauden ortoargazkiak erabiliz (https://www.geo.euskadi.eus/geobisorea).

   Informazio hori bereziki kontrastatuko da zalantzak dauden kasuetan. Horretarako, argazki zeiharrak eta antzekoak ikusiko dira, Street View erabiliz, esaterako. Horrela, eraikinaren irudi osoagoa emango da (fatxadak).

3. SIG plataforman: Udal erroldetarako ad-hoc garatutako Geoeuskadi_geoestudioa aplikazioen bidez lortutako datuak errepresentatu eta aurkeztea. “EAEn amiantoaren udal erroldak egiteko Gida metodologikoa” izeneko dokumentuan definitutako errepresentazio kartografikoaren eredua erabiliko da.

Lehenengo fase honetatik eraikinen lehenengo kategorizazio bat lortuko da, eta hori hurrengo etapetan eguneratu ahal izango da, informazioa osatzen denean.

Erabiliko diren baliabideak: Artxiboko dokumentuak eta SIG tresnak (GEOEUSKADI).

Tresna informatikoak. GEOEUSKADI eta FIELDMAPS.

Kontsulta-iturriak: EUSTAT, UDALA, KATASTROA, ORTOARGAZKIAK.

Irailaren 23a plaza z/g 48950 ERANDIO (Bizkaia)

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2025-05-09 06:26:52(UTC) Fecha: 09/05/2025 06:26:52 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (fe4677be-f7fe-4f21-a8b7-9d703cdf8c62) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Kaudimen teknikoa: GIS oinarrizko erabilera eta aditua MCA instalazioak identifikatzen.

FASE HONETAN ENTREGATZEKO DOKUMENTAZIOA:

Eraikin publiko eta pribatuen, zerbitzu-egituren (ur-eroanbideak, komunikazioak, elektrizitatea...) eta udalerriko bestelako elementu posibleen aurretiko errolda. Informazio geografikoko sistema batean (SIG-GEOEUSKADI-FIELDSMAPS) eta Excel formatu editagarri eta ustiagarrian aurkeztuko da, hori guztia aipatutako gida horretan jasotako irizpideen arabera (EAEn amiantoaren udal erroldak egiteko Gida metodologikoa).

2.1.2. OINARRIZKO ETAPA

Errolda-maila honek aurrekoari gehitzen dio landa-lana, zuzeneko behaketaren bidez. Batez ere eraikinak behatuko dira, estalki eta fatxadako elementu gehiago antzemateko asmoz, antzemandako estalkiak baieztatzeko eta aurretiko mailan erabilitako prozeduren bidez antzeman ezin daitezkeen materialen presentzia ere gehitzeko.

Aurretiko mailan antzemateko zailak diren lekuetan eta fatxadetan elementuak antzemateko landa-lan horren bidez, zehaztutako maila noraino helduko den baloratuko da. Oinarrizko erroldako lanak prozedura hau edukiko du:

1. Ikuskaritza bisuala: Teknikari kualifikatuaren ikuskaritza, bertatik bertara. Helburua da amiantoa (MCA) duten materialak identifikatzea instalazioaren edo lekuaren kanpoko aldetik, modu ez inbasiboan amiantoaren presentzia egiaztatzeko (kanpoko aldetik behatzea).

2. Materialen egoera baloratzea: Antzemandako MCA horien arrisku-egoera baloratuko da, honela: Txarra (A*), Halamoduzkoa (B) eta Ona (C). Horretarako, antzemandako MCA elementuen ezaugarriak baloratuko dira (luzapena/kantitatea, mantentze-egoera, irisgarritasuna, hartzaileen babesgabetasuna eta eraikin edo instalazioaren izaera publikoa edo pribatua) eta aipatutako Gidan proposatutako ponderazio-algoritmoa aplikatuko da (EAEn amiantoaren udal erroldak egiteko gida metodologikoa -2024ko apirila-).

3. SIG plataforman eguneratzea: SIG tresna eguneratzea “FIELDMAPS” aplikazioaren bidez, aurretiko erroldan egindako lana osatuz.

4. Errepresentazio grafikoa.

5. Udal mailako 1. Errolda egitea, fase zehaztuan osatzeko.

Bigarren fase honetan eraikin eta instalazio guztien lehentasuna markatuko da, amiantoa kentzeko. Irizpide orokor moduan, “txarra” balorazioarekin sailkatzen direnei emango zaie lehentasuna, aurretik adierazitako irizpideen arabera. “Material egoera” bakoitzerako, ekintza-plan zehatz bat aurreikusi beharko da, amiantoa kentzeko edota behatzeko.

Erabiliko diren baliabideak: Tableta, argazkiak, landa-fitxak.

Tresna informatikoak. GEOEUSKADI eta FIELDMAPS

Kontsulta-iturriak: Behaketa bertatik bertara

Kaudimen teknikoa: GIS oinarrizko erabilera eta aditua MCA instalazioak identifikatzen

FASE HONETAN ENTREGATZEKO DOKUMENTAZIOA:

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2025-05-09 06:26:52(UTC) Fecha: 09/05/2025 06:26:52 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (fe4677be-f7fe-4f21-a8b7-9d703cdf8c62) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Aurretiko mailan egindako errolda eguneratzea. Aplikazioa eguneratuko da eta Excel formatu editagarri eta ustiagarrian emango da ikuskaritza-eremuetan, lortutako emaitzekin. Aplikazioaren bidez ikuskaritzatik eta landa-lanetik eratorritako informazio guztia gehituko da (argazkiak, landa-fitxak, oharrak, datu osagarriak...).

Aurretiko eta oinarrizko mailetan entregatu beharreko dokumentuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

-SIG-GEOEUSKADI-FIELDMAPS aplikazioa behar den moduan beteta eta dagokion SHP artxiboa, beste SIG programa batzuekin bateragarria.

- Memoria: erabilitako metodologia, lana egin duten langileak eta lortutako emaitzen laburpen tabulatua deskribatuz (instalazio/kokaleku potentzialak, identifikatutako elementuak eta horien egoera).

- MCA kentzeko 1. egutegia (aurretikoa).

-XLSX taula (eredu publikoa), instalazio edo kokaleku bakoitzaren informazio zehatza jasotzen duena.

Oinarrizko mailan, amaitzeko, honako ekintzak identifikatuko dira:

a) Udal mailako errolda egitea, fase zehaztuan osatzeko.

b) Amiantoa duten eta egoera txarrean dauden materialen egutegia / kronograma.

c) Ekintza Plana udal eraikinen ikuskaritza zehatza egiteko, eta titularrak Erandioko Udalari erabilera-emakida egin dion eraikinetan ere.

d) Eraikin pribatuen sailkapena eta lehentasunak markatzea, azterketa zehaztua eskatzeko.

2.1.3. ETAPA ZEHAZTUA

Errolda maila honetan eraikin batean amiantoa duten material guztiak antzeman nahi dira. Oinarrizko maila baino urrats bat harago joan nahi dugu, izan ere, kanpoko zein barruko aldetik egingo da behaketa, mugarik gabe, eraikin edo elementuan dauden MCA guztiak identifikatu eta lokalizatzeko. Horrela izanik, datu horiek erreferentzia moduan erabiliko dira beste jarduera batzuk egiteko unean, hala nola proiektuak, erreforma-lanak, birgaikuntzak, eraisketak, MCA kentzeko borondatezko lanak edota bestelakoak (mantentze-lanak eta abar). Adostu den moduan, maila zehaztua udal eraikin guztietan egingo da, eta titularrak Erandioko Udalari erabilera-emakida egin dion eraikinetan ere.

Hiriko sare eta instalazioetan ere egingo da, baita bide publikoan dauden udal elementuetan ere (markesinak, lorontziak, eta abar).

Erabilitako metodologia gidan azaldutakoa izango da, “EAEn amiantoaren udal erroldak egiteko gida metodologikoa (2024ko apirila)”.

Eskumena duten organismoek onetsitako prozedurak erabiliz egin beharko dira ikuskaritza zehatzak, horiek arautzen dituen araudi espezifikorik ez dagoen bitartean. Horien artean, hauek erabiliko dira: nazio mailako UNE 171370-223 araua, zeina Laneko Segurtasun eta Osasunaren Institutu Nazionalak aipatzen baitu amiantoaren mendeko arriskuen ebaluazio eta prebentziorako gida teknikoan (2022ko apirila), edota europar mailako beste arau batzuk, hala nola Frantziako NF X46- 02024, eraikinetan amiantoa identifikatzeko erreferentziarik osatuenetakoa.

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2025-05-09 06:26:52(UTC) Fecha: 09/05/2025 06:26:52 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {fe4677be-f7fe-4f21-a8b7-9d703cdf8c62} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Ikuskaritza zehaztua osatzeko, azterketa dokumentalaz eta begizko identifikazio zehatzaz gain, baliteke beharrezkoa izatea amiantoa eduki dezaketen materialen laginketa bat egitea.

Hori horrela izanik, laginketa-plan bat definitu beharko da, aztertu beharreko materialen adierazgarritasuna bermatuz. Hartzen diren laginak laborategi espezifikoetan aztertu beharko dira, ez soilik amiantoaren edukia konfirmatzeko, baizik eta aztertutako laginean dagoen amianto mota identifikatzeko, horretarako dauden analisi-teknikak baliatuz.

Laginak hartzeko katak zabaldu behar badira, Udalarekin adostu beharko da kasu bakoitza. Enpresa adjudikazio-hartzailea arduratuko litzateke hori egiteaz eta kataren eremua hasierako egoeran uzteaz. Hori ere Udalak onetsi beharko du.

Ikuskaritza zehatzaren ondorioa izango da, beste batzuen arteran, identifikatutako elementu bakoitzaren arrisku-maila baloratzea. Arriskua 3 mailatan sailkatuko da (I, II edo III). I. maila izango da arrisku handienekoa.

I. mailako lehentasuna (arrisku handia): Amiantoa berehala kentzea.

II. mailako lehentasuna (tarteko arriskua): Kentzea, lehentasunik gabe.

III. mailako lehentasuna (arrisku txikia): Kentzea edo ezer ez egitea eta momentuz behatzea.

Erroldaren maila zehaztuko lanak prozedura hau edukiko du:

1.- Dokumentazio historikoa errebisatzea:

2.- Onetsitako arauen araberako ikuskaritza zehatza (UNE 171370-2 araua, RD 396/2006 Gida teknikoa, martxoaren 31koa, NF X46-020).

3.- Arriskua baloratzea UNE 171370 arauaren arabera.

4.- Adierazpen grafikoa

5.- Azken txostena

Erabiliko diren baliabideak: NBEak eta lan arloko legeriak eskatzen dituen neurri guztiak.

Tresna informatikoak. Aurreko mailetan erabilitako baliabide informatiko berdinak eguneratzea.

Kontsulta-iturriak:

Azpiegitura edo lekuaren artxibo historikoak kontsultatzea (obra-proiektuak, lizentziak...).

EUSKOREGITE. Eraikinen ikuskaritza teknikoaren kudeaketa eta informaziorako ataria.

Ezagutzak dituzten langileekin elkarrizketak egitea (jabeak, mantentze-lanetako teknikariak...).

Aurreko etapei buruzko informazioa.

Lantokiko lan-arriskuen ebaluazioa.

Kaudimen teknikoa: GIS oinarrizko erabilera eta aditua MCA instalazioak identifikatzen.

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2025-05-09 06:26:52(UTC) Fecha: 09/05/2025 06:26:52 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (fe4677be-f7fe-4f21-a8b7-9d703cdf8c62) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Laginak hartzeko, RERA enpresa, agintari eskudun batek onartutako Plan Bakar Orokorra duena. Eta laginketa egiteko, Laneko Arriskuen Prebentziorako Goi mailako Teknikaria, Higiene Industrialaren espezialitatea.

FASE HONETAN ENTREGATZEKO DOKUMENTAZIOA:

Ikuskaritza-txosten osoa (instalazio/leku bakoitzeko). Txostenak banatuta identifikatu beharko ditu antzemandako elementu susmagarri guztiak, kokapenak eta emaitzak.

Sortutako txostenak MCA guztiak identifikatu beharko ditu, eta gutxienez informazio hau jaso beharko du:

1. Datu orokorrak: sustatzailea, data, ikuskatutako lekuen identifikazioa.

2. Txostena sinatzen duen erakundearen datuak, identifikazioa eta sinadura.

3. Ikuskaritza / ikerketaren xedea (1. edo 2. mota).

4. Ikuskatutako instalazio edo kokalekuaren datuak: eraikuntza-urtea, birgaikuntza edo erreforma urtea, titulartasuna, egungo erabilera eta okupazioa (pertsona kopurua).

5. Erabilitako arau edo metodologia (arriskuaren balorazioa barne).

6. Azterketa dokumentalaren emaitzak.

7. Ikuskaritza-eremua (kokalekua /instalazio osoa edo ez). Ikuskatu gabeko eremuak.

8. Ikuskaritza egiteko baldintzak (desbideratzeak, mugaketak...)

9. Ikuskaritzaren emaitzak:

    a. MCA elementuak identifikatzea planoan eta argazkiekin.

    b. Antzemandako materiala kuantifikatzea (bolumena eta pisua).

    c. MCA bakoitzaren arriskua baloratzea.

    d. MCA bakoitzerako ekintza-plana.

10. Eranskinak: planoak, argazkiak, laborategiko erreporteak, MCA bakoitzaren fitxa emaitzarekin eta arriskuaren balorazioarekin.

Aurreko etapetan entregatzeko dokumentuen eguneraketa: excel errolda eta SIG informazioa.

2.2.- AMIANTOA KENTZEKO PLANA

Ikuskaritzetan lortutako emaitzetatik abiatuta (oinarrizkoa eta zehaztua) amiantoa kentzeko plana erredaktatuko da. Horretarako egutegi bat ezarriko da, eta lehentasuna emango zaie adingabeak dauden eta arrisku handieneko moduan sailkatuta dauden instalazio edo kokaleku publikoei (haurtzaindegiak, ikastetxeak...), eta zentro soziosanitario moduan erabiltzen diren instalazio edo leku pribatuei. Edonola ere, 2028 urtea baino lehen egin beharko dira. .

Lehentasunezko lekuetan amiantoa kenduta, arrisku ertain eta txikia duten instalazio eta lekuetatik kentzeko plana ezarriko da (esaterako, MCA enkapsulatua).

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2025-05-09 06:26:52(UTC) Fecha: 09/05/2025 06:26:52 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (fe4677be-f7fe-4f21-a8b7-9d703cdf8c62) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Instalazio edo leku pribatu bakoitzak bere ibilbide-orria edukiko du, eta kasuistikaren arabera kudeatuko da.

Arrisku txikiko gisa sailkatu diren leku horietan MCA kentzea planteatuko da materialak aldatu behar diren egoeretan (ekimen propioz edo zaharkituta daudelako), birgaikuntza lanetan edo eraisketan.

Planean, gainera, lan bakoitzerako beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak aurreikusi behar dira. Espresuki adierazi beharko dira legezko baldintza teknikoak, betearazteko epeak eta aurrekontuaren estimazioa.

2.3.- KONTRATUAREN XEDEKO BESTELAKO DOKUMENTUAK

Zehaztutako dokumentazioaz gain, dokumentu hauek aurkeztuko dira, zeinak zabalkunderako erabiliko baitira:

- Herritarrei amiantoaren erroldaren eta amiantoa kentzeko planaren berri emate aldera, adjudikazio-hartzaileak komunikazio-ohar bat egingo du lanak egiten hasi aurretik, eta Udalak ohar hori zabalduko du.

- Lanak amaitzean laburpen txosten ez tekniko bat egingo da, eta Udalak bere komunikabideen bidez argitaratu eta zabalduko du.

Behin betiko dokumentu guztiak (etapa zehaztua eta zabalkundekoa) euskaraz eta gaztelaniaz entregatuko dira.

3.- BETEARAZPEN-PROPOSAMENA

Lizitatzaileek honako gai hauek barne hartu beharko dituzte beren proposamenean:

- Proposatutako helburuak lortzeko erabiliko den lan-metodologia.
- Faseak eta egitekoak deskribatzea, proiektuaren helburuak lortzeko aspektu kritikoak eta aspektu horien arriskuak murrizteko ekintzak barne hartuz.
- Proiektuaren kronograma eta plangintza.
- Jarraipen-plana, funtsezko bilerak identifikatuz.

4.- ADJUDIKAZIO-HARTZAILEAREN ETA KONTRATUA BURUTZEAZ ARDURATZEN DIREN LANGILEEN PROFIL PROFESIONALA

Eskaintzan zehaztu beharko da zein langilek parte hartuko duten kontratua burutzeko lanean, zenbat ordu aurreikusten diren, eta zein beharrizan espezifikori erantzun beharko dien Udalak proiektua garatzeko.

Kontratua esleitzen zaion pertsonak bere lan-taldeko pertsona bat izendatuko du lanen arduradun tekniko moduan. Pertsona hori solaskide moduan arituko da adjudikazio-hartzailearen eta udal teknikarien artean. Lanak epearen barruan eta dagokion moduan egiten direla bermatzeaz arduratuko da eta bilera guztietan egon beharko da.

Adjudikazio-hartzaileak, gainera, titulazio egokia daukan bere erakundeko pertsona bat izendatuko du plana zuzentzeko. Plana bera egin eta erredaktatuko du. Pertsona horrek koordinatuko ditu aztertu beharreko arloak. Arduradun teknikoa izan daiteke, ala ez.

Adjudikazio-hartzaileak proiektatutako eta zuzendaritzak onartutako lan-programaren arabera egingo dira lanak. Programa horren jarraipena egin beharko da eta egunean jarri. Beharrezkoa balitz, prozeduraren araua

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2025-05-09 06:26:52(UTC) Fecha: 09/05/2025 06:26:52 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (fe4677be-f7fe-4f21-a8b7-9d703cdf8c62) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

egingo da eta errebisio guztiek zuzendaritzaren oniritzia beharko dute. Kontratua Udalak onartutako lan-programaren arabera garatuko da. Kontratuaren arduradunak onartuko du, agiri honetan ezarritakoa kontuan izanda. Hala ere, programa horrek aldaketak izan ditzake, justifikatutako arrazoiak direla medio.

Lanaren aspekturen batengatik irizpide teknikoetatik harago doazen erabakiak hartu behar direnean, adjudikazio-hartzaileak zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen dituen aurkezpenak egingo ditu, dagokion udal organoaren aurrean.

Adjudikazio-hartzaileak beste iturri batzuetatik lor dezakeen informazioa alde batera utzita, udalak konpromisoa hartzen du lanak egiteko beharrezkoa den eta udal artxiboetan egon daitekeen informazio guztia emateko.

Aurretiko eta oinarrizko etapan ari diren langileek esperientzia profesionala izan beharko dute amiantoa ikuskatu eta identifikatzeko lanetan eta informazio geografikoko tresnak erabiltzen. Esperientzia hori egiaztatu egin beharko da.

Enpresako ikuskatzaileek UNE 171370-2 ARAUAREN 4. Atalean zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte, “langile ikuskatzailea” izateari dagokionez.

Zehaztutako etaparen barruan laginak hartzen dituzten langileak Laneko Arriskuen Prebentziorako Teknikari tituludunak izango dira, higiene industrialaren espezialitatean, eta RERA enpresa bateko kide. Gainera, Plan Bakar Orokor bat izan beharko dute, laneko agintaritza eskudunak onartutako laginak hartzeko. Ikuskaritza bakoitza martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuaren arabera jakinarazi beharko da.

Enpresak langileren baten ordezkapena egin beharko balu, antzeko beste profil bat sartuko da. Aldez aurretik Erandioko Udalari jakinaraziko dio. Baldintza hori ez betetzea kontratua desegiteko arrazoia izango da.

5.- ADJUDIKAZIO-HARTZAILEAK KONTUAN IZATEKO BETEBEHAR OROKORRAK

5.1.- Kontratua ondo joateko, beharrezko giza baliabideak, baliabide materialak eta teknikoak edukiko ditu. Adjudikazio-hartzaileak berme guztiekin eman beharko du zerbitzua. Langile kopuru nahikoa eduki beharko du lanaren fluxura egokitzeko. Kontratua burutzeko ezarritako epeak kontuan izan beharko dira.

5.2.- Langileek ez dute inolako loturarik izango Erandioko Udalarekin. Adjudikazio-hartzailearen mende egongo dira, eta erakunde horrek langileekiko eskubide eta betebehar guztiak edukiko ditu, indarreko legeriaren arabera eta etorkizunean egon daitekeenaren arabera. Udalak ez du adjudikazio-hartzailearen betebeharren inguruko erantzukizunik izango, ezta kaleratzeak edota hartzen diren neurriak kontratuaren betetze-maila edo interpretazioaren ondoriozkoak direnean ere. Adjudikazio-hartzailearen erantzukizuna izango da langile propio edo azpikontratatuek zerbitzua emateko izango dituzten gastu guztiak ordaintzea. Langile horiekiko betebeharrak adjudikazio-hartzailearen ardura izango dira, betiere indarreko legeriaren arabera. Errolda, zerrenda, erabiltzaile edota instalazioen datuak, kodeak edo erregistro teknikoak sekretupean gorde beharko dira.

5.3.- Laneko arriskuen prebentzioan eta osasun eta segurtasunean indarrean dagoen legeria guztia bete beharko da. Gainera, kontuan izan behar da MCAren eraginpean egon daitezkeela, beraz, langileek izan ditzaketen istripuen ardura izango du, langile propioak zein azpikontratatuak izan.

5.4.- Ikuskaritza-lanek ez dute amiantoaren mende egotearen arriskurik ekarriko, ez ikuskatzaileentzat, ezta hirugarrenentzat ere.

5.5.- Adjudikazio-hartzailea izango da erantzulea bere langileek lokaletan, instalazioetan edota Udalaren edozein ondasunetan eragin ditzaketen kalteen inguruan.

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2025-05-09 06:26:52(UTC) Fecha: 09/05/2025 06:26:52 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (fe4677be-f7fe-4f21-a8b7-9d703cdf8c62) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

5.6.- Kontratistak langile nahikoak izango ditu absentzia, opor, gaixotasun edota bestelako arrazoiengatik egin beharreko ordezkapenak egiteko. Horrek ez du zerbitzuaren prestazioan eragingo.

5.7.- Kontratuaren udal arduradunak adjudikazio-hartzailearekin hitz egingo du MCA duten elementuak egon daitezkeela susmatzen den udal eraikinen inguruan. Adjudikazio-hartzaileak jarraibide horiek kontuan hartu beharko ditu, eta kasu horietan katak zabaldu beharko dira.

5.8.- Araudiak kontuan izan behar diren lanetarako, langile kualifikatuak izango dira, dagozkien baimenak eta egiaztagiri ofizialak izango dituzte. Hala badagokio, liburu edo dokumentu ofizialak bete beharko dira. Bisitak eta balorazioak egin eta informazioa ematen duten langileek arlo honetan lan egiteko titulazioak eduki beharko dituzte, Europako zuzentarauen arabera. Atzerrian eskuratutako titulazioei dagokienez, titulua homologatuta dagoela adierazten duen egiaztagiria izan beharko da. Titulua aurkeztu beharko da, egiaztatzeko.

5.9.- Zerbitzuarekin bat egiten duten langile guztiek baimena eduki beharko dute udal eraikinetan bisitak, ikuskaritzak eta katak egiteko. Baimen hori Erandioko Udalak emango du. Kontratu honen xedeko lekuetan lanak egin behar dituzten langileak adjudikazio-hartzailearen izenean identifikatuta egon behar dira, eta beti eramango dute akreditazioa ondo ikusteko moduan.

5.10.- Kontratistari dagokio eragindako zerbitzu ezberdinekiko komunikazioa kudeatzea. Lehenik eta behin, udaltzaingoarekin komunikatu beharko da.

5.11.- Adjudikazio-hartzaileak beharrezko langileak hartu beharko ditu kontratua ondo garatzeko, baita baliabide materialak, ibilgailuak eta ekipoak ere.

5.12.- Kontratazioan ezarritako prezioek lanak burutzeko beharrezko gastuak barne hartuko dituzte, amaitu eta azken txostena entregatu arte; bereziki, zerrenda guztiz zehatza izan gabe, honako hauek: beharrezko lantaldea, lanerako beharrezko bulego eta instalazioak, materiala, makinak eta tresnak garraiatu eta alokatzea, hala badagokio; material suntsikor edo txikia, osasun eta segurtasunari dagozkion unitate guztiak, norbera babesteko ekipoak eta lanak burutzeko beharrezko baliabide osagarri guztiak. Hori dena sartuta dago prezioetan.

6.- ARAUDI APLIKAGARRIA

Orokorrean, kontratuaren xedeko lanak Agiri honetan ezarritakoaren arabera egingo dira, kontuan izanda araudi aplikagarria eta honako lege hauek: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, eta 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, ekonomia zirkularrerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa, eta gainerako araudia.

31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan arriskuen prebentzioari buruzkoa.

396/2006 Errege Dekretua, martxoaren 31koa, amiantoaren eraginpean egoteak dakartzen arriskuei dagokienez segurtasun eta osasuneko oinarrizko xedapenak ezartzen dituena.

7/2022 Legea, apirilaren 8koa, ekonomia zirkular baterako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.

105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen duena.

112/2012 Errege Dekretua, ekainaren 26koa, Euskadin eraikuntza- eta eraispen-hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen duena.

UNE 171370-2 ARAUA

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2025-05-09 06:26:52(UTC) Fecha: 09/05/2025 06:26:52 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (fe4677be-f7fe-4f21-a8b7-9d703cdf8c62) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Gainera, agiri honen beste atal batzuetan zehaztu den moduan, EAEn amiantoaren udal erroldak egiteko gida metodologikoan ezarritako aspektuak kontuan izan beharko dira.

Kontratazio hau, gainera, tokiko erakundeentzako dirulaguntzen deialdian ezarritako baldintzen mende dago, beraz, lanak egiterako orduan kontuan izan beharko dira dokumentu horietan ezarritako baldintzak:

143/2024 FORU DEKRETUA, ABENDUAREN 19KOA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIARENA, ZEINAREN BIDEZ EZARTZEN DIREN BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN HONDAKINEN KUDEAKETAREN ZIRKULARTASUNA SUSTATZEKO INGURU NATURAL ETA NEKAZARITZA SAILAK EMATEN DITUEN DIRULAGUNTZAK. 2025EKO DEIALDIA.

7.- DATUEN BABESA

Adjudikazio-hartzailea suertatzen den enpresak kontratazio honen ondorioz sortzen diren datu pertsonalak sekretupean gorde beharko ditu, eta konpromisoa hartzen du datuen tratamendurako euskarri informatikoak egokitzeko eta segurtasun-neurrien arabera lan egin ahal izateko. Sortzen diren artxiboak ezin dira inola ere komunikazio-sare pribatuekin lotu.

8.- EGINDAKO LANEN JABETZA

Lanak Erandioko Udalaren jabetzakoak izango dira. Adjudikazio-hartzaileek ezin izango dituzte kontratatutako lanen datuak eurentzako erabili, ezta hirugarrenei laga ere. Era berean, ezin izango dituzte argitaratu, ez partzialki ezta osorik ere, Udalaren baimenik gabe. Edonola ere, betebehar hori ez betetzearen ondoriozko kalteen erantzule izango da.

9.- EGIN BEHARREKO LANAREN BALORAZIOA

Kontratuaren gutxi gora beherako balioa ondoren zehazten dena da:

AURRETIKO ERROLDA	4.000,00 €
OINARRIZKO ERROLDA	6.000,00 €
ERROLDA ZEHAZTUA	32.000,00 €
(Laginak hartu, analitika egin eta katak ireki eta ixtea: 17.000,00 €)	
GUZTIRA	42.000,00 €
BEZ	8.820,00 €
GUZTIRA BEZ BARNE	50.820,00 €

10.- EGITEKO EPEA

Kontratua betetzeko epea, fase guztietan, SEI HILABETEKOA (6) izango da, gehienez, kontratua adjudikatzen eta formalizatzen denetik aurrera. Epe partzialak:

- HILABETE bat AURRETIKO errolda entregatzeko, errolda ZEHAZTUA egiteko ikuskaritzen plangintzarekin batera.
- HILABETE (1) OINARRIZKO errolda entregatzeko.

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2025-05-09 06:26:52(UTC) Fecha: 09/05/2025 06:26:52 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (fe4677be-f7fe-4f21-a8b7-9d703cdf8c62) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

- LAU HILABETE (4) errolda ZEHAZTUA entregatzeko, egindako beste lanekin batera (laginak, saiakerak...), baita ZABALKUNDE dokumentua eta amiantoa KENTZEKO PLANA ere.

Gutxiegitasunak, akatsak edota omisioak zuzentzeko epea, halakorik bada, kasu bakoitzean Udaleko zerbitzu teknikoek ezartzen dutena izango da. Edonola ere, 15 egunekoa izango da, gehienez.

11.- ORDAINTZEKO ERA

Egindako zerbitzuaren zenbatekoa ordainduko da epe partzialak betetzen diren heinean, eta zenbatekoak hauek izango dira. Errolda Zehaztuaren kasuan, aurkeztutako faktura ordaintzeko, dokumentu horrek udal teknikarien onespena beharko du, edo dagokion organoak onartu beharko du:

AURRETIKO ERROLDA	ADJUDIKAZIO-ZENBATEKOAREN % 10A
OINARRIZKO ERROLDA	ADJUDIKAZIO-ZENBATEKOAREN % 20A
ERROLDA ZEHAZTUA	ADJUDIKAZIO-ZENBATEKOAREN % 70A

Eta hala jakinarazten dugu, bidezko diren ondorioak izan ditzan.

Erandio Elizatean,

OBRA ETA ZERBITZUETAKO UDAL ARKITEKTOA.

Sin. Inge Izagirre Bernaola

Sinatzaile / Firmante: ERANDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ERANDIO Data: 2025-05-09 06:26:52(UTC) Fecha: 09/05/2025 06:26:52 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (fe4677be-f7fe-4f21-a8b7-9d703cdf8c62) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.